



Giza eskubideen kulturaren sakonduko duen lankidetzaz finkoa hasi dute Aldundiak eta UPV/EHUK

Diputatu nagusiaren esanetan, "urrats bat aurrera" eman da "Gipuzkoa sozialki kohesionatuago eta berdina baten norabidean"

UPV/EHUko errektoreak, Nekane Balluerkak, Unibertsitateari agertutako konfiantza eskertu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmena sinatu dute giza eskubideen alorreko ikuspegi eta politiken inguruko lankidetzan sakontzeko. Foru jauregian sinatu dute elkarlan jarraitua abiaraziko duen hitzarmena gaur, Markel Olano diputatu nagusiak eta Nekane Balluerka, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak. Hain justu, nor bere esparruan, bi erakundeek urteak daramatzate lanean giza eskubideen kulturaren sustapenean eta aurrerantzean areagotu egingo da kolaborazio hori Aldundiak zuzenean jasoko baitu Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren gidaritza eta aholkua giza eskubideen gaietan.

Sinadura ekitaldian parte hartu dute UPV/EHUko errektoreordeak, Agustin Erkiziak; Giza Eskubideen eta Botere Publikoen katedrako zuzendariak, Jon Miren Landak; eta Bizikidetzaz eta Giza Eskubideetako foru zuzendariak, Maribel Vaquerok.

Sinaketa ekitaldian, Markel Olano diputatu nagusiak, nabarmendu egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak giza eskubideei ematen dien zentraltasuna eta azaldu du "giza eskubideen defentsa eta sustapena politiken erdigunean jarrita, herritarrak eta haien funtsezko eskubideei bermea" ematen zaiela. Ikuspegi hau erakundearen jardunean modu sistematikoan txerta dadin, Katedrak Aldundiaren egitasmo eta politikak aztertuko ditu, ekimen berriak proposatu eta zuzeneko laguntza emango dio foru erakundeari. "Urrats bat aurrera eman da", diputatu nagusiaren esanetan, "Gipuzkoa sozialki kohesionatuago baten norabidean, berdintasunean eta diskriminazio ezan sakonduz". Hala, "giza eskubideen kultura eta kultura politiko demokratikoa lurralde osoan zabaltzeko konpromisoa" sendotzeko asmoa agertu du diputatu nagusiak "gizarte kohesioaren funtsezko oinarria" baita, "etorkizuneko bizikidetzaz", hain zuzen.

"Aldundiak, herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanda, entitate lokal giza zuzenean eragiteko aukera" duela azpimarratu du diputatu nagusiak. Zentzu honetan, aitzindaria da Foru Aldundia, entitate lokal giza giza eskubideen ikuspuntua bere politiketan inplementatzeko bideak urratzen hasia da eta. *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana* da horren adibide. Urtarrilean aurkeztutako plan honek giza eskubideen eta aniztasunaren sustapena bultzatzen du erakundearen departamentu guztietan ekintza eta jardueren bitartez. Plangintza hau prestatu eta kontrastatzeko orduan, Katedra izan da bidelaguna. Hitzarmen honekin kolaborazio hori gorpuztu eta egonkortu egingo da.

UPV/EHUko errektore Nekane Balluerkaren esanetan, "irakaskuntzan eta ikerkuntzan diharduen erakundea izateaz gain, UPV/EHUK balioak transmititzen ditu eta



gizarte ikuspegitik arduratsu jokatzeko du". "Dimentsio hori ez da eguneroko lanean soilik garatzen, kanpora begira ere zabaldu egiten da, bereziki euskal gizarteari begira, zeinekin ekidin ezin dugun konpromisoa duen gure unibertsitateak. Horregatik guztiagatik, UPV/EHU jarritako konfidantza eskertu nahi nioke Aldundiari", azaldu du.

Aldundiaren eta UPV/EHUn arteko hitzarmen hau Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren bitartez ahalbidetuko da. Izan ere Katedraren helburu nagusia laguntzea baita, esparru akademikotik, euskal gizarteko giza eskubideen aldeko kulturaren sustapena eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea hobeto eta areago aplikatzea lotzen. Asmoa da botere publikoek diziplina horretan aurkitu ahal izatea jardura publikoa, giza eskubideen arabera, eraginkortasun handiagoz eta biziago garatzeko laguntza gehigarria. Helburu horri helduta, azkeneko bi urteotan egindako katedraren ekarpenetik hiru lan-ildok erakusten dute Gipuzkoako Aldundiarekin hasiko dugun hitzarmenean zein ispirituz lan egiteari ekingo zaion.

Lehenengo ildoak, indarkeria politikoaren alorrean, egia azaltzeko lanari ekin dio katedrak irmotasunez. Bigarrenengoan, gure euskal arazo propioez haratago, gorroto-delituaren alorrean ildo estrategikoa ezarri du katedrak, horretarako Ertzaintzarekin batera horren inguruko lehen Euskadiko txosten ofiziala sortuz, urtero errepikatuko dena. Azkenik nazioarteko giza eskubideen zuzenbidetik begiratuta, aurten, kanpaina erraldoia koordinatzen eta sustatzen ari da Katedra. Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiak, hiru hiriburuetako udalek, Eudelek eta UPV/EHUK martxan jarri zuten *Eskerrak Giza Eskubideei* kanpaina, horien sustapena, aldarrikapena eta defentsa sendotzeko. Ekimen horren bidez, Euskadik bat egiten du Nazio Batuek Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 70. urteurrena ospatzeko sustatzen duten *Defenda dezagun giza duintasuna, zuzentasuna eta justizia* kanpainarekin. Horretarako, euskal erakundeek baterako ekitaldi-programa irekia aurreikusita dute, une honetan garatzen ari dena katedraren akuilu-lanaz lagunduta.

Elkartrukean

Giza Eskubideen kulturaren sustapenean bat eginik, Katedrak eta Aldundiak jakintza elkartrukeko bideak irekiko dituzte. Lankitzea honen abiarazteak 10.000 euroko dotazioa izango du, aurrerantzean ere elkarlanari eusteko borondatearekin. Gipuzkoako Foru Aldundia gaur egun aurrera eramaten ari den politiketan giza eskubideek duten presentzia aztertuko du Euskal Herriko Unibertsitateak, foru planak eta araudi nagusia aztertuz. Jada egiten den lanean sakondu eta hobetu ahal izango du Aldundiak UPV/EHUn Katedraren laguntzarekin, prestakuntza plan bat diseinatuko baita Aldundiko langileak giza eskubideen arloan trebatzeko. Halaber, jardura berriak bilatuko dira, helburu orokorraren pean, hau da, Giza Eskubideen ikuspegia zeharka ezarri dadila politika publiko guztietan. Gizarte osoari begira, prebentzio estrategia bat diseinatuko du Katedrak programa, ekintza ala kanpainen bitartez giza eskubideen kultura bultzatuko duena.

Donostia, 2018ko irailak 3.



La Diputación y la UPV/EHU formalizan un convenio para profundizar en la cultura de los derechos humanos

Según ha expresado el diputado general, esta colaboración supone “un paso más” hacia una “Gipuzkoa socialmente más cohesionada e igualitaria”

La rectora de UPV/EHU, Nekane Balluerka, ha agradecido a la Diputación Foral de Gipuzkoa la confianza mostrada en la universidad

La Diputación Foral de Gipuzkoa y la Universidad del País Vasco han firmado un convenio de colaboración con el objetivo de profundizar en las perspectivas y políticas relacionadas con los derechos humanos. El diputado general Markel Olano y la rectora de la Universidad del País Vasco Nekane Balluerka han firmado hoy, en el palacio foral, un convenio que impulsará una colaboración continuada. Precisamente, las dos instituciones, cada una en su ámbito, llevan años promoviendo la cultura de los derechos humanos, y es objetivo de ambas estrechar dicha colaboración de cara al futuro; para ello, la Cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos orientará y asesorará a la Diputación en materia de derechos humanos.

En la firma del convenio también han participado Agustín Erkizia, vicerrector del campus de UPV/EHU en Gipuzkoa; Jon Mirena Landa, director de la cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos, y Maribel Vaquero, directora foral de Convivencia y Derechos Humanos.

El diputado general Markel Olano ha destacado el papel central que la Diputación Foral de Gipuzkoa otorga a los derechos humanos y ha señalado que “situando la defensa y la promoción de los derechos humanos en el centro de las políticas, se garantizan los derechos básicos de la ciudadanía”. Con el objetivo de profundizar en la perspectiva considerada prioritaria por el diputado, la Cátedra analizará la actuación y las políticas actuales de la Diputación, propondrá nuevas iniciativas, y ofrecerá apoyo directo a la institución foral, reconociendo la trayectoria recorrida y con el deseo de seguir trabajando conjuntamente en la misma dirección. En palabras del diputado general, el acuerdo supone “un paso adelante más en la consecución de una Gipuzkoa más cohesionada socialmente, más igualitaria y profundizando en el principio de no discriminación”. Olano ha reiterado el compromiso de afianzar la cultura de los derechos humanos junto con la cultura política democrática en nuestro territorio, como “fundamento de la cohesión social hacia una convivencia que mira al futuro”.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección de Convivencia y Derechos Humanos, es pionera en su ámbito a nivel institucional y lleva años promoviendo iniciativas vinculadas a los derechos humanos mediante programas y ayudas. El diputado general ha señalado que “la Diputación es la institución más cercana a la ciudadanía y, como entidad local, tiene la posibilidad de influir directamente”, y ha puesto como modelo el *Plan Foral de Convivencia en la Diversidad*, presentado a inicios



de este año. Este plan que tiene una vigencia de dos años enfoca la perspectiva de los derechos humanos en la institución con pautas y acciones que abarcan todos los departamentos que conforman el ente foral. Un plan de amplia envergadura que ya contó en su fase de elaboración con el contraste y las aportaciones de la cátedra.

Según ha manifestado Nekane Balluerka, “la UPV/EHU es una institución docente e investigadora, pero es también una entidad transmisora de valores y socialmente responsable”. “Esa dimensión no solo se desarrolla en su labor cotidiana, sino que se proyecta hacia el exterior, más en concreto, hacia la sociedad vasca, con la que tiene un ineludible compromiso. En ese sentido, agradezco a la Diputación Foral de Gipuzkoa la confianza depositada en nuestra universidad”, ha resumido.

El convenio entre la Diputación y UPV/EHU se materializará mediante la cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos, ya que el objetivo de esta entidad es la promoción desde ámbito académico de la cultura en favor de los derechos humanos en la sociedad vasca, así como la aplicación cada vez más efectiva del derecho internacional de derechos humanos. El fin último es que los poderes públicos sitúen su actuación en ese marco, teniendo como referencia los derechos humanos, contando con el apoyo necesario para desarrollar su actividad con mayor eficacia.

En estos últimos años la cátedra ha desarrollado su actividad en torno a tres líneas de trabajo que pueden servir de referencia para el trabajo que se va a desarrollar junto con la Diputación de Gipuzkoa. La primera línea, en el campo de la violencia política, en la que la cátedra ha desarrollado con firmeza la labor búsqueda y transmisión de la verdad. En segundo lugar, más allá de los problemas propios de la sociedad vasca, ha establecido una línea estratégica en el campo de los delitos de odio, creando junto con la Ertzaintza el primer informe oficial en este campo, labor que se repetirá todos los años. Por último, desde la perspectiva del derecho internacional de derechos humanos, la cátedra coordina este año una campaña de gran tamaño. Se trata de la campaña ‘Eskerrak Giza Eskubideei’ para la promoción, reivindicación y defensa de los Derechos Humanos, organizado junto con el Gobierno Vasco, las tres diputación, los ayuntamientos de las tres capitales, Eudel y UPV/EHU. De esta manera, Euskadi se alinea con la campaña puesta en marcha por las Naciones Unidas en el 70º aniversario de la Declaración de Derechos Humanos. Para ello, las instituciones vascas prevén un programa unificado de actos, dinamizado por la Cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos.

Intercambio

En línea con el compromiso de promover la cultura de los derechos humanos, la Cátedra y la Diputación abrirán las vías para el intercambio del conocimiento. Para la puesta en marcha de este convenio se contará con una dotación de 10.000 euros, y existe la voluntad de mantener la colaboración cara al futuro. La Universidad estudiará la presencia de los derechos humanos en las políticas que desarrolla actualmente la Diputación Foral de Gipuzkoa, y, para ello, examinará los planes forales y la normativa general.



La Diputación, por su parte, podrá contar con la ayuda de la Cátedra para profundizar y mejorar el trabajo que está realizando actualmente, ya que se diseñará un plan de formación con el objetivo de capacitar al personal de la Diputación en el área de derechos humanos. Asimismo, se procederá a la búsqueda de nuevas actividades, siempre con un objetivo general, esto es, que se establezca transversalmente la perspectiva de los derechos humanos en todas las políticas públicas. De cara a la sociedad, la Cátedra diseñará una estrategia de prevención y desarrollará programas, acciones y campañas dirigidas a la promoción de la cultura de los derechos humanos.

San Sebastián, 3 de septiembre de 2018